



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **7 kolore**

Egilea / Autor: **Jon Arretxe**

Ilustratzailea / Ilustradora: Cristina Fernández

Musika / Música: Francisco Ibáñez

ISBN / EAN: 978-84-9746-642-4

Salneurria / Precio: 26 € (BEZ barne – IVA inkluido)

Orri kopurua / N° páginas: 208

Formatua / Formato: 22 x 23,5 cm

Liburua
+
CD 1

Lana / La obra

Ostarku gainetik ibiliz legez, obra honek kolorerik kolore eta emoziorik emozio garamatza. Zazpi dira atalak: beltza, grisa, horia, gorria, berdea, urdina eta zuria. Beltzak eta zuriak, hurrenez hurren, ibilbidearen hasiera eta amaiera markatzen dituzte, eta agerian uzten dute zein desberdina den heriotzaren ikuspegia kultura desberdinetan: bidearen amaiera iluna Mendebaldean, edo beste argi bateranzko abiapuntua Ekialdean.

Atalak osatzen dituzten narrazioek idazlearen egiazko bizipenak kontatzen dituzte, munduan zehar ikusitako errealitate desberdinak. Egoera gogoangarri asko daude, batzuk tristeak, beste batzuk pozgarriak, edo beldurgarriak, edo esperantzatsuak... Pertsonak dira nagusi narrazioetan, hamaika mundutako biztanleak, zerbait kontatu edo erakutsi beharra daukatenak, edo euren begirada hutsaz unibertso oso bat adierazten dutenak.

Baina narrazioez gain bestelako osagarriak dakartza *7 kolore* honek. Izan ere, atal bakoitzak bere kolore eta ilustrazioak ere badauzka; eta bere musika ere bai, piano eta ahotserako beren beregi sortua eta CD baten bildua. Soprano batek, tenor batek eta baxu batek ipintzen diote doinua kolore bakoitzari, piano-jolearen laguntzaz.

7 kolore obra hirukoitza da, azken finean: idazle baten, ilustratzaile baten eta musikagile baten elkarlanaz sortutakoa.

Egilea / El autor

Jon Arretxe, Basaurin jaioa, doktorea da Euskal Filologian eta lizentziaduna Heziketa Fisikoan. Literaturaren arloan hogeitabat liburu ditu argitaratuak, jenero desberdinetakoak: bidai literatura, nobela beltza, umorezko narrazioak, beldurrezkoak... Gehienak sarritan berrargitaratuak izan dira.

Musikaren arloari dagokionez, Pianoko ikasketak Bilboko kontserbatorioan egin zituen, eta Kantukoak Gasteizko eta Bilboko kontserbatorioetan. Besteak beste, Ainhoa Merzero eta Olatz Saitua izan zituen irakasle. Gaur egun Ricardo Visus irakaslearen hobekuntza eskolak jasotzen ditu.

Entzunaldi eta kontzertu ugaritan kantatu du bakarlarri gisa (Bach-en ohorezkoetan Bilboko katedralean, Schubert eta Schumann-en jaialdietan Euskaldunan, Arriagako "Plenilunioetan"...). Bilboko Opera Koruan ere kantatzen du.

ISBN: 978-84-9746-642-4



9 788497 466424

www.erein.com


erein